

EZAGUTZAREN UNIBERTSALIZAZIOARI
BURUZKO JARDUNALDIAK

EUSKARAREN HERRIA *EUSKAL HIZTUN*

Bizkaia Aretoa, Bilbo • Azaroak 12 eta 13



ANTOLATZAILEAK



EGITARAUA

AZAROAK 12, OSTEguna



IREKIERA EKITALDIA

🕒 09:00-09:30

Paul Bilbao Sarria Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusia

Miren Dobaran Urrutia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea



HASIERAKO HITZALDI NAGUSIA

🕒 09:30-11:00

🗣️ Interpretazio-zerbitzua

*Ezagutzaren unibertsalizazioaren hari-muturrak
ikuspegi soziolinguistikotik*

Xavier Vila Moreno Universitat de Barcelona

———— ETENA 🕒 11:00-11:30 ————



HITZALDIA

🕒 11:30-12:30

*Euskararen transmisioaz ari garelarik, zertaz ari gara?
Hausnarketa estrategikorako gakoak*

Paula Kasares Corrales Nafarroako Unibertsitate Publikoa



ELKARRIZKETA


🕒 12:30-13:30

*Aisialdia eta ingurune digitala, bi ardatz sozializazioan:
nola jardun, zer egin?*

Maite Asensio Iparragirre Urtxintxa Eskola

Xabier Landabidea Urresti Deustuko Unibertsitatea

———— ETENA 🕒 13:30-15:30 ————



MAHAI-INGURUA

🕒 15:30-17:30

*Hezkuntzaren oraina eta etorkizuna: Zer eta nola egin ikasleen
gaitasunetan eragiteko eta belaunaldi berri
euskaldun (aktibo) eleaniztunak erdiesteko?*


Lurdes Imaz Gorostidi EHIGE

Mikel Ormazabal Loinaz Kristau Eskola

Iñigo Salaberria Aliaga HEIZE

Koldo Tellitu Mejia Euskal Herriko Ikastolak

Bideratzailea: **Arantxa Urbe Irazusta** Irakaslea



ELKARRIZKETA

🕒 17:30-18:30

Eskola, familia, gizartea... Ingurunearekin elkarrekintzaren beharra

Zigor Ibarzabal Bastarrika Ikastolen Elkarteko hezkuntza arduraduna

Inma Muñoa Barredo Ikastolen Elkarteko hizkuntza egitasmoen koordinatzailea

AZAROAK 13, OSTIRALA



BIGARREN HITZALDI NAGUSIA

🕒 09:00-09:45 *Gizarte erantzukizuna ezagutzaren unibertsalizazioan:
jendartea entzun eta elkarrekin erantzun*

Amaia Etxabe Goikoetxea Txatxilipurdi elkartea



MAHAI-INGURUA

🕒 09:45-11:15 *Nola kokatzen da helduen euskalduntzea hizkuntza-politiketan?
Zein dira instituzioen egungo erronka nagusiak?*

Mikel Arregi Perez Euskarabidea

Jokin Azkue Arrastoa HABE

Argitxu Camus Etxekopar Euskararen Erakunde Publikoa

————— ETENA 🕒 11:15-11:45 —————




ELKARRIZKETA

🕒 11:45-13:00 *Zein bide egin behar da helduen euskalduntzearen
sektorean hurrengo urteetan?*

Isidro Ioldi Iturbide Urrats euskaltegia

Alizia Iribarren Andueza AEK

Joxerra Olano Etxabe IKA



AMAIERAKO HAUSNARKETA

🕒 13:00-13:45 *Ezagutzaren unibertsalizazioaz haratago:
hiztun izatetik hiztun aktibo izatera*

Jone Goirigolzarri Garaizar Deustuko Unibertsitatea



JARDUNALDIEN ITXIERA

🕒 13:45-14:00

PROTOKOLOA

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Bizkaia Aretoarekin elkarlanean, ondoko segurtasun- eta osasun-protokoloa garatu dute *Euskararen herria euskal hiztun* jardunaldietarako:



Ezinbestekoa izango da uneoro **maskara jantzita** izatea.



Bizkaia Aretoa eraikinerara sartzean eta irteteen, zein jardunaldiak ospatuko diren Baroja Entzunaretorara sartzean eta irteteen, ezinbestekoa izango da **eskuak gel hidroalkoholikor garbitzea**.




Bizkaia Aretoaren barnean, Baroja Entzunaretorako **sarrera- zein irteera-bideak adierazita** egongo dira, eta argibide horiei jarraitzea gomendatzen da. Era berean, eraikinaren barrura sartzen den unetik **korridoreen eskuineko aldetik** ibili beharko da.



Jardunaldietan antolakuntzak ezarritako tokietan soilik eseri ahal izango da, eta **egun osoan zehar ezin izango da eserlekuz aldatu**.



Jardunaldietan zehar egingo diren etenaldietan **ez da kafe edo catering zerbitzurik eskainiko**.



Interpretazio-zerbitzua duen hitzaldian, **antolatzaileek banatuko dituzte erabilera bakarreko aurikularrak**; ezin izango dira trukatu, eta behin bakarrik erabiltzea gomendatzen da.



Jardunaldietara bertaratu aurretik zein jardunaldiek dirauten bitartean **ondoezik sentituz gero, ez bertaratzea edo entzunaretoa uztea** eta antolakuntza jakinaren gainean jartzea gomendatzen da.



Jardunaldietan zehar **osasun-arazoren bat** identifikatzen bada, **izen-ematean jasotako datuetan** oinarrituko dira antolatzaileak egoerak eskatutako **jakinarazpenak** egiteko.



Segurtasun- eta osasun-protokolo honen inguruan **arazo edo zalantzaren bat** izanez gero, **antolakuntzako kideengana jo**.

PROGRAMA

HASIERAKO HITZALDI NAGUSIA

📅 Azaroak 12, osteguna 09:30-11:00

🗣️ Interpretazio-zerbitzua

Ezagutzaren unibertsalizazioaren hari-muturrak ikuspegi soziolinguistikotik

Hizkuntza gutxituei lotzen gatzazkienean ezagutzaren unibertsalizazioa izaten da errepikatzen den ideietako bat. Halere, zer esan nahi dugu hizkuntzaren ezagutzaren unibertsalizazioa aipatzean? Finean, kontzeptu horren atzean dauden ezaugarriak dira lehenik eta behin zehaztu beharrekoak. Bestalde, egia da, bai, ezagutzaren eta erabileraren ardatzak direla normalizazio-prozesuan dagoen hizkuntzaren egoera neurtzeko erabiltzen ditugun bi aldagai garrantzitsu. Halere, zein da haien arteko lotura? Zein erabilera espero daiteke ezagutza-ehuneko zehatz batetik? Zein erabilera espero daiteke hizkuntza-gaitasun zehatz batzuetatik? Galdera horiei guztiei eta ezagutzaren unibertsalizazioak dituen beste hari-muturrei erantzuteko eskatu diogu soziolinguistikan aditu Xavier Vilari.

Halaber, eta testuinguru desberdinak bizi baditugu ere, ezagutza-tasak, hizkuntzen arteko harremanak... Katalunian ezagutzaren unibertsalizazioaren inguruan egun bizi duten egoera partekatzeko ere eskatuko diogu aurrera begirako erronkak eta gakoak identifikatu, eta baliagarriak izan ditzakegunak geure egiteko.

XAVIER VILA MORENO

(Bartzelona, 1966)



Katalan Filologian lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean (1989) eta Hizkuntzalaritzan doktore Vrije Universiteit Brusselen (1996). Soziolinguistika eta Hizkuntzalaritza Katalaneko irakasle titularra da Bartzelonako Unibertsitatean. Halaber, Hizkuntzalaritza Katalaneko irakasle aritu izan da hainbat unibertsitatetan, besteak beste, Humboldt-Universität zu Berlinen eta City University of New Yorkeko Graduate Centerren. Bartzelonako Unibertsitateko Aholkularitza, Hizkuntza Politika eta Argitalpen Zerbitzuetako Masterreko zuzendaria izan da.

2010eko apiriletik Bartzelonako Unibertsitateko Soziolinguistika eta Komunikazio Ikerketa Zentroko (CUSC) zuzendaria da. Aurretik, Kataluniako Ikasketen Institutuko CRUSCAT Sareko lehen zuzendaria izan zen (2004-2009), eta 2009tik bertako Kontseilu Iraunkorreko kide da.

Soziolinguistika eta hizkuntza-politikan espezializatua, bere lan arloak demolinguistika, hizkuntza-politika konparatua, diskurtso linguistiko eta glotopolitikoaren azterketa kritikoa, hizkuntzen ukipena eta hezkuntza-soziolinguistika dira. Kataluniako, Espainiako eta Europako ikerketa-proiektu lehiakor askotan parte hartu du. Artikulu zientifiko ugari idatzi ditu aldizkari indexatuetan (*Language Problems and Language Planning*; *Language, Culture and Curriculum*; *Treballs de Sociolingüística*, etab.), liburu-kapituluetan, hainbat liburukiren editore, nazio barneko zein nazioarteko argitaletxeetan. Azken lanen artean azpimarratzekoak dira *Language Policy in Higher Education. The Case of Medium-Sized Languages* (2015); *Survival and Development of Language Communities: Prospects and Challenges* (2013); edo *Noves immigracions i llengües* (2013). Soziolinguistika eta hizkuntza-politika gaietan hainbat erakunde publiko eta pribatutako ahokulari; besteak beste, Kataluniako Generalitateko Kultura eta Hezkuntza Departamentua, Soziolinguistika Klusterra edo Ipar Irlandako Gobernu Autonomoa. Maiz egiten ditu jakintza hedatzeko eta zabaltzeko ekintzak, hainbat komunikabidetan artikulu ugari argitaratzea barne, hala nola Ara eta El Punt-Avui egunkarietan.

Revista de Llengua i Dret aldizkariaren erredakzio-kontseiluko kide da. Bertan hizkuntza-politikaren eta soziolinguistikaren arloak zuzentzen ditu 2016tik. Halaber, *LSC – Llengua, Societat i Comunicació* Bartzelonako Unibertsitatearen aldizkariaren erredakzio-kontseiluko eta Kataluniako Soziolinguistika Elkarteko kide ere bada.

HITZALDIA



Azaroak 12, osteguna



11:30-12:30

Euskararen transmisioaz ari garelarik, zertaz ari gara? Hausnarketa estrategikorako gakoak

Orain arte, nagusiki, euskararen belaunez belauneko jarraipena transmisioaren paradigmatic aztertu da. Transmisioa modu bertikalean ulertu izan da eta haurra agente pasibotzat jo izan da, hartzaile hutsa. Gainera, nagusiki etxean gertatzen den fenomeno gisa ulertu da, ama-hizkuntzaz jabetzeari erabat lotuta. Transmisioaren paradigma baztertu eta sozializazioa erabiltzea proposatzen du Kasaresek. Izan ere, sozializazioak gainditu egin ditu transmisioak dituen mugak, besteak beste, horizontalean gertatzen diren elkarrekintzak ere biltzen ditu, bai eta hurrek eskolan ikasten duten hizkuntzarekiko beren familiei sorrarazten dizkien motibazio eta irakaspen berriak ere.

Hizkuntzaren sozializazioak honako hauei begiratzen die: nola diren haurrak sozializatuak hizkuntzaren erabileraren bidez eta nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko. Izan ere, hurrek hizkuntza, kodea ez ezik, hizkuntza erabiltzeko arau sozialak, hizkuntzen arteko hierarkia eta halakoak ere barneratzen dituzte.

Ondorioz, ezagutzaren eremuari lotzen bagatzaizkio ere, interesgarria da transmisioaren paradigmatic sozializazioaren paradigmara jauzia egitea.



PAULA KASARES CORRALES

(Iruñea, 1969)

Euskal Filologia (Deustuko Unibertsitatea) zein Gizarte eta Kultura Antropologia (Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU) lizentziak egin zituen eta ondoren Hizkuntza Plangintzan Graduondoko Unibertsitate Diploma (EHU) nahiz Gizarte eta Kultura Antropologiari loturiko graduondoko ikasketa hauek: Ikasketa Berezituen Goi Mailako Diploma, Oinarrizko Ikerketa Aplikatuako Master titulua eta Ikasketa Aurreratuen Diploma (hirurak Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan).

2013an Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUPen) doktore maila erdietsi zuen euskararen belaunez belauneko jarraipenaren eta familia euskaldunetako hizkuntza-sozializazioaren gaineko tesi baten bidez.

Haren ibilbidea soziolinguistikaren alorrean jorratu du. Hizkuntza-normalizaziorako teknikari lanetan hasi zen 1995ean Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuan. 1998tik 2000ra Udako Euskal Unibertsitateko Soziolinguistika sailaren arduraduna izan zen eta 2001etik 2003 bitarte Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria. 2002tik 2018 bitartean HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondokoan (EHU) irakaslea izan da. Egun Nafarroako Gobernuako Euskarabidea erakundean jarduten du, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendari. Horretaz gain, NUPeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Saileko irakasle elkartua da.

Bestalde, soziolinguistika eta hizkuntza-antropologia alorretako hiru liburu eta hainbat artikulua ere idatzi ditu. Horietako bati esker 2011n Soziolinguistika Klusterrak ematen duen Hausnartu saria irabazi zuen. Hala berean, komunikazio eta hitzaldi ugari eman ditu biltzar-mintegietan, Euskal Herrian nahiz atzerrian.

2006tik euskaltzain urgazlea da.

ELKARRIZKETA



Azaroak 12, osteguna



12:30-13:30

Aisialdia eta ingurune digitala, bi ardatz sozializazioan: nola jardun, zer egin?

Gero eta maizago azpimarratzen da aisialdiak haurren euskalduntze-prozesuan duen garrantzia, bai eta lehen mailako behar pedagogikoaren izaera eman beharko litzaiokeela ere. Aisialdiko hezkuntzaren arloan zenbait elkartek hartu dute helburu gisa euskara, baina ez euskaraz aritzea soilik, bai eta euskararen normalizaziorako aritzea ere. Horrek esan nahi du aisialdiaren funtzioa haur eta gazteen hizkuntza-gaitasunak bizitzako egoera errealetan eraginkorrak izatea ahalbidetzeaz haratago, haurren eta hizkuntzaren arteko harremanean eragiteko ere izan daitekeela. Horrela, aisialdia haur eta gazteen sozializazioan agente aktibo bihurtzen da hizkuntzaren ezagutzari, erabilerari zein motibazioari dagokienean. Hartara, aisialdiko jardueretako parte-hartzailea den haurra euskararen erabiltzaile den gazte izatera iristea da helburua: euskaldun izatearen kontzientzia duena eta hizkuntzaren alde modu koherentean jokatzeko duena, maila pribatuan zein sozialean.

Horrekin batera, eta haurren zein gazteen sozializazioari eta aisialdiari lotuta, gaur egun ukaezina da gazteen arteko elkarrizketen zati handia sarean izaten dela. Sakonki aztertu beharko da nola eragin dezakegun guk ingurune digitalean. Garrantzitsua da nola eragin dezaketen hizkuntza-gaitasunetan eta erabileran, baina are garrantzitsuagoa nola jokatu ezagutzan eta erabileran areagotzea nahi badugu.

Bi eremu horiek ardatz hartuta, aisialdiko eta ingurune digitaleko aditu bana jarriko dugu elkarrizketan, bereziki, sozializazioaren esparruan aisialdiak eta ingurune digitalak hizkuntzaren ezagutzan nola eragiten duten hausnartzeko, bai eta nola balia daitezkeen edo zein estrategia gara daitezkeen ere, besteak beste, euskararen ezagutzaren eta erabileraren mesedetan.



MAITE ASENSIO IPARRAGIRRE

(Tolosa, 1980)

Maite Asensio Iparragirrek Haur Hezkuntzako irakasle gradua du. Horrekin batera, aisialdi begirale- zein zuzendari-tituluak ere baditu. 2003tik aurrera ari da Urtxintxa Eskolan. Hasiera batean hezitzaile lanetan jardun zuen, 2005etik aurrera hizkuntza-normalizazioan eta 2019tik aurrera Urtxintxako koordinatzaile orokorra da. Aisialdiarekin lotura eta eskarmentu handia du.



XABIER LANDABIDEA URRESTI

(Bilbo, 1981)

Xabier Landabidea Urresti Ikus-Entzunezko Komunikazioan eta Administrazio eta Politika Zientzietan graduatua eta Aisia eta Giza Potentzialean doktorea da. Kultura, aisia, hizkuntza eta komunikaziorako teknologien inguruan landu du bere ikerketa ibilbidea. Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Euskal Gaien Institutuko ikertzaile elkartua da. Hizkuntza Kultura eta Gizartea, Giza Zientzia Digitalak, Baliabide Digitalen Hizkuntza Aplikazioak eta Sare Komunikazio Sistemak ikasgaien arduraduna izan da gradu mailan, Komunikazio Estrategikoaren inguruko ikasgaiena Master mailan eta Software bidez lagundutako Azterketa Kualitatibo mintegiena doktorego mailan. Euskal Gizartearen Egoera ikerketa-saria irabazi zuen "Euskaldunak eta telebista XXI. mende hasieran" doktorego tesiarekin. UEUko Komunikazio sailburua eta Talde Eragileko kidea da. AtopiaRPG euskaraz sortu eta argitaratutako lehen rol jokoaren proiektuko kidea da eta euskarazko burujabetza ludikoaren lerroan interesatuta dabil aspaldion.

MAHAI-INGURUA

📅 Azaroak 12, osteguna

🕒 15:30-17:30

Hezkuntzaren oraina eta etorkizuna: Zer eta nola egin ikasleen gaitasunetan eragiteko eta belaunaldi berri euskaldun (aktibo) eleaniztunak erdiesteko?

Hezkuntzak funtzio nahitaezkoa bete du, betetzen du eta bete behar du ezagutzaren unibertsalizazioan. Urratsak egin dira, zalantzarik gabe. Halere, ezagutzaren unibertsalizazioari lotzen bagatzaizkio bi datu gurutzatzen zaizkigu; batetik, ereduaren arabera matrikulazioa eta bestetik, ikasleen hizkuntza-gaitasuna.

Mahai inguruan parte hartuko duten pertsonak hezkuntza formalean diharduten eragile nagusietako ordezkariak dira eta ikasleek euskararen ezagutza egokia erdiestea dute haien helburu nagusietako bat. Are gehiago, euskararen gaian adostasuna agertu izan dute hainbat aldiz. Egun dituzten kezketatik abiatuta, etorkizuna nola irudikatu eta ibilbide-orria zein den zehaztea izango da mahai-inguruaren helburutako bat, bai eta etorkizuneko estrategiak partekatzea ere.



LURDES IMAZ GOROSTIDI

(Azkoitia, 1973)

Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteko koordinatzailea



MIKEL ORMAZABAL LOINAZ

(Andoain, 1959)

Kristau Eskolako zuzendari nagusia



IÑIGO SALABERRIA ALIAGA

(Hondarribia, 1966)

Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioko lehendakaria



KOLDO TELLITU MEJIA

(Barakaldo, 1966)

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakaria

ELKARRIZKETA



Azaroak 12, osteguna



17:30-18:30

Eskola, familia, gizartea... Ingurunearekin elkarrekintzaren beharra

Lehen saioan sozializazioak ikasleen gaitasunetan eta jarreretan duen garrantzia azpimarratuko dugu. Aurretik, hezkuntza-eragileek mahai gaineratu dute zer eta nola egin behar den ikasleen gaitasunetan eragiteko etorkizun hurbilean. Halere, bada kontuan hartu beharreko beste elementu bat, finean, ikastetxea ez da elementu isolatua. Ikastetxeak ingurune hurbilarekin zein urrunarekin du lotura eta, beraz, inguruneak eragina du ikastetxean, eta ondorioz, ikasleen gaitasunetan. Gizarte eraldaketa dugu hizpide, eta bertan norbanakoaren arduratik abiatuta, ardura kolektibora jauzi egiteko garaia dela ikusten dugu. Izan ere, hizkuntza baten ikaskuntza prozesu soziala da. Halere, garrantzitsua da hori guztia egunerokoan nola lotzen den, nola uztartzen den jakitea.

Horri, gainera, ezin saihestu egungo testuinguruak ingurune hurbilean utzi duen egoera. Ikasleen gaitasunek zein ondorio izan duten kezka arrazoi da, baina ikasleen beste gabeziei ere erreparatu behar zaie gaitasunetan ere eragin nahi badugu. Horrela, hizkuntza-gaitasunetan eragiteko ikasleen emozioei arreta jartzea aldarrikatzen ari da azken egunotan.

Eskolak, familiak eta gizarteak norabide berean lan egitea garrantzitsua den bezala, hezkuntza komunitateko kideek ere hizkuntzei dagozkien hainbat ikuspegi eta jardunbide adostea eta horien arabera jokatzeko ezinbestekoa da ikasleen hizkuntza-gaitasunaren garapen egokia sustatu nahi bada. Horrela, elementu horiek oinarri, baina ikuspegi praktikoa bermatuz jardungo dute Imma Muñoak eta Zigor Ibarzabalek.

ZIGOR IBARZABAL BASTARRIKA

(Oñati, 1979)

Zigor Ibarzabal Bastarrika Oñatin jaio zen 1979ko azaroaren 7an. Hezkuntza zientzietan atzerriko hizkuntzaren didaktika adarreko unibertsitate ikasketak amaitu zituenetik hezkuntza arloan aritu da. Txantxiku Ikastolan hasi zuen bere ibilbidea atzerriko hizkuntzako irakasle lanetan hasieran eta Zuzendari lanetan ondoren. Irakasleen prestakuntzan aritu zen Ikastolen Elkartean eta egun erakunde horretako Hezkuntza Arduraduna da. Horrekin batera IKASELKAR Hezkuntza argitaletxeko Zuzendaritza taldeko kide da.



INMA MUÑO A BARREDO

(Donostia, 1967)

Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia ikasi ondoren, Soziolinguistikaren inguruko gradu ondoko ikasketak egin zituen EEBBetan (University of Illinois at Urbana-Champaign). 2001 urtean Ikastolen Elkartearen Eleanitz proiektuan hasi zen lanean, eta gaur egun Hizkuntz Egitasmoen koordinatzailea da Ikastolen Elkartean. Horretaz gain, BAT soziolinguistika aldizkariaren argitalpen batzordeko kide da, eta Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkartearen zuzendaritza taldeko partaidea.



BIGARREN HITZALDI NAGUSIA

📅 Azaroak 13, ostirala

🕒 09:00-09:45

Gizarte erantzukizuna ezagutzaren unibertsalizazioan: jendartea entzun eta elkarrekin erantzun

XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propioa emango dien eraldaketa-mugimendu bat sustatzeko egitasmoa da Debagoiena 2030. Askotariko eragile eta norbanakoen lankidetzatik, metodologia, proiektu eta ekimen ezberdinak bultzatuz eta konektatuz, erronka horietan inpaktu esanguratsua izan nahi duen sarea sortzen ari da. Horrela, eraldaketarako gakoak ezagutzeko, eta aldaketarako palanka izan litezkeenak identifikatzeko, berrikuntza sozialean oinarritutako metodologia erabiltzen ari dira. Halere, lehen-lehenik entzun nahi izan dute, eta elkarriketak dira entzute horren oinarrian erabili diren tresnak. Entzute-ariketan euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruko hainbat hari-mutur ere jaso ziren eta izan da bertan agertutakoari erantzuteko dinamika komunitariorik ere. Txatxilpurdi elkarteak izan da, besteak beste, entzute-ariketa horiek egin dituenak, eta prozesuaren berri emango du. Halaber, prozesuaren berri ematearekin batera, entzundakoak aintzat hartuz martxan jarritako hainbat egitasmo eraldatzaileraren nondik norakoak partekatuko ditu.



AMAIA ETXABE GOIKOETXEA

(Arrasate, 1988)

Amaia Etxabe Goikoetxea Eraikuntza Zibileko Herri Lanen Ingeniari Teknikoa da, baina hezkuntzaren eta kulturaren eremura jauzia egin zuen. Lehenik, Hizkuntzen Irakaskuntzan Gaitzeko Unibertsitateko Masterraren bidez, eta, ondoren, Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bidez, bai eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioan Aditu Tituluaren bidez ere.

Horietaz gain, hezkuntzari, komunitateari eta eraldaketari buruzko hamaika ikastarotan eta jardunalditan hartu du parte.

Lan-eskarmentuari dagokionez, irakaskuntzan hasi bazen ere, 2013tik hona Txatxilpurdi elkartean ari da. Lehen bi urteetan berramesten saileko teknikari, eta 2015etik hona elkarteko koordinatzaile orokorra da.

MAHAI-INGURUA

📅 Azaroak 13, ostirala

🕒 09:45-11:15

Nola kokatzen da helduen euskalduntzea hizkuntza-politikan? Zein dira instituzioen egungo erronka nagusiak?

Euskal Herriko instituzio nagusiek jasota dute haien hizkuntza-politikan helduen euskalduntzearen eremua edo esparrua: Hizkuntza-proiektua, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, Euskararen Plan Estrategikoa... Horrekin batera, mahai inguruan parte hartuko duten hiru erakundeek 2020an berretsitako Hiruko Ituna izeneko hitzarmenean ere helduen euskalduntzeari dagozkion lanak lantzeko batzorde teknikoa eratzeko asmoa agertu zuten, hain zuzen ere, curriculum eta horri dagokion material atertzeko, irakasleen berariazko prestakuntzari begira erakundeen antolatzen dituzten jardunetan parte hartu ahal izateko, eragileekin lotura eginez diagnosia egin eta alde bakoitzak dituen premiak aztertzeko, eta HABEko liburutegiko zerbitzuak erabili ahal izateko.

Euskararen lurraldeko hiru erakunde nagusiak mahaiaren inguruan izango ditugula probesturik, helduen euskalduntzearen inguruko etorkizuneko politikak partekatzeko eskatuko diegu.

MIKEL ARREGI PEREZ

(Iruñea, 1961)

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea



JOKIN AZKUE ARRASTOA

(Asteasu, 1961)

HABEko zuzendaria



ARGITXU CAMUS ETXEKOPAR

(Donapaleu, 1980)

Euskararen Erakunde Publikoko helduen euskalduntzeko misio karguduna



ELKARRIZKETA

📅 Azaroak 13, ostirala

🕒 11:45-13:00

Zein bide egin behar da helduen euskalduntzearen sektorean hurrengo urteetan?

Euskaltegiek urterik urte aldarrikatzen dute helduen euskalduntzearen estrategikotasuna ezagutzaren unibertsalizazioan, eta, ondorioz, hizkuntzaren normalizazioan. Duela hainbat hamarkada sortu ziren lehen gau eskoletatik egungo euskaltegietara gauza asko aldatu badira ere, euskaltegiek helduen euskalduntzeari egiten dioten ekarpenak bere horretan jarraitzen du.

Halere, interesgarritzat jo dugu euskaltegiak elkarrizketa baten bueltan biltzea etorkizuna irudikatzeko. Etorkizuna irudikatu behar dugu, helduen euskalduntzeari dagokionez, klabe edo ildo estrategikoak non dauden partekatzeko, etorkizuna irudikatu behar dugu lehentasunak zehaztu eta ibilbide orria zehazteko. Finean, etorkizuna irudikatu behar dugu euskaltegiek ezagutzaren unibertsalizazioan betetzen duten funtzioa berresteko eta etorkizuneko gakoak identifikatzeko.



**ISIDRO
IOLDI
ITURBIDE**

(Iruñea, 1964)

Urrats euskaltegiko zuzendaria



**JOXERRA
OLANO
ETXABE**

(Azkoitia, 1962)

IKAko ordezkaria



**ALIZIA
IRIBARREN
ANDUEZA**

(Elizondo, 1976)

AEK-ko koordinatzaile nagusia

AMAIERAKO HAUSNARKETA

📅 Azaroak 13, ostirala

🕒 13:00-13:45

Ezagutzaren unibertsalizazioaz haratago: hiztun izatetik hiztun aktibo izatera

Euskararen herrian euskal hiztun izenburupean ezagutzaren unibertsalizazioa erdiesteko gakoak aletuko dira jardunaldian zehar. Halere, hizkuntza gutxitua da euskara, eta kodea eskuratzeaz gain, badago hiztunek egin beharreko beste urratsa bat; alegia, hiztunak baino, hiztun aktiboak behar ditugu.

Hiztun aktiboei dagokienez, interesgarriak dira oso Jone Goirigolzarrik, Ane Ortegarekin eta Estibaliz Amorrorturekin batera, egindako ikerketa-lanak. Lehenik eta behin Katalunian garatutako hiztun aktibo bihurtzeko prozesua, muda- edo mudantza-prozesua, gure testuingurura ekarri zuten. Ondoren, herritarrekin egindako azterketa oinarri, hiztun aktibo bihurtzeko prozesuan muda-egile eta ez-egileen profilak definitu zituzten.

Hausnarketan Goirigolzarrik muda-prozesuaren markoa azaltzeaz gain, euskararen kasuan izandako profilak partekatuko ditu. Halere, egindako azterketaz haratago ezagutzaren unibertsalizazioak mudantza-prozesuetan duen eragina eta mudantza-prozesu arrakastatsuak egiteko gakoak ere hausnargai izango ditu.

Jardunaldietako amaierako hausnarketa horren ingurukoa izateak etorkizunari begirako hainbat gako non dauden ezagutzen lagunduko digu, ezagutzaren unibertsalizazioa erdigunera ekartzeaz gain, horren osagarri diren elementuak ere kontuan hartzeko.



JONE GOIRIGOLZARRI GARAIZAR

(Bilbo, 1989)

Jone Goirigolzarri Garaizar Soziologian eta Zientzia Politikoetan zein Antropologia Sozial eta Kulturean graduatua da Deustuko Unibertsitatean. Halaber, doktore da gizarte-zientzietan. Hainbat egonaldi egin ditu Galeseko zein Estatu Batuetako unibertsitateetan.

Ikerketa-proiektu askotan hartu du parte, eta horien artean azpimarratzekoak dira hizkuntza-ohiturei, euskaldun berriei edota gazteei buruzkoak. Horien inguruan hainbat lan argitaratu ditu bakarka zein talde-lanean, esaterako, *Alderdi politikoak eta hizkuntzak: diskurtso linguistikoak Euskal Autonomia Erkidegoan, 2017*; *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen*; *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*; *Authenticity and linguistic variety among new speakers of Basque*; *Nou parlants de basc: identitat i legitimitat*.

Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat kongresutan egin izan ditu ekarpenak, besteak, beste diskurtsoaren, hiztun berrien praktiken edota hiztun aktiboen inguruan.

Egun, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko eta Soziologiako Saileko departamentuko irakaslea da. Horrekin batera, EHUKo Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedrako kidea da, eta *Inguruak* soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkariko erredakzio-taldeko kidea. Halaber, Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteko zuzendaritza-batzordeko kide edota Eusko Ikaskuntzaren Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen taldeko kide ere izan da.



DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA